



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko azaroaren 23a

114. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentua premiatzen da “Josefina Arregui” zentro psikogeriatrikoarekin harremanetan jar dadin eta harekin bideragarritasun plana adostu dezan. Osasun Batzordeak onetsia (4. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da dietista-nutrizionistak 11/1992 Foru Legean eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sar ditzan. Osasun Batzordeak onetsia (5. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, “Pedro de Ursúa” BHIko tokirik eza dela-eta sortu diren hezkuntza-premiak asetze aldera egiten ari den plangintzari buruzkoa, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egina (6. or.).

—Galdera, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen % 0,7 arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legea betetzeari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (7. or.).

—Galdera, jakiteko zein den Nafarroako Gobernuari eskatu zitzaion ikuskapen baten emaitza, xede zuena ezagutzea ea ikastetxe itunduetan familiei eskatzen ari ote zaizkien ordainketak egin ditzaten doako irakaskuntzaren truke, Ana Figueras Castellano andreak egina (8. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proiektu hori 2010eko azaroaren 3ko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko azaroaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

1. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa. Proiektua Nafarroako Gobernuari itzul dakion proposatzen da.

Zioak: Proiektuak ez du sistemaren sakoneko erreforma bat biltzen, hain zuzen ere azken urteetan galdu den progresibotasuna eta diru-bilketaren ahalmena berreskuratzeko. Hortaz, ez zaio ekiten krisi ekonomikoak diru-bilketan eragindako galera arintzeko gaur egun ezinbestekoa den aldaketa egiteari.

Eta aldaketa horri ekin beharrean, aurrekontu-defizita mozte aldera Gobernuak proposatzen duen bide bakarra da gastua eta inbertsio publikoa larriki murriztea.

Proiektuak ez du inolako neurririk proposatzen diru-bilketari dagokionez zuzeneko zergen eta zeharkako zergen artean gertatuko den desoreka drastikoa zuzentzeko, Nafarroako Gobernuaren beraren aurreikuspenen arabera 2011 gertatuko dena.

Mantentzen den eredu fiskal honen diru-bilketak kontsumitzaileei eta langileei esker irauten du, progresibotasun erreala galtzen ari da urtez urte, eta oso gutxitua du diru-bilketa ahalmena.

Ogasun publikoarentzat bidegabeak eta kaltegarriak diren neurriak ere ez dira zuzentzen; esate baterako, berriki ondarearen gaineko zerga kendu izana.

2. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa. Proiektua Gobernuari itzul dakion proposatzen da.

Zioak: Nafarroa Bai parlamentu-taldea ez dago ados UPNren Nafarroako Gobernuak legebiltzar honetan eztabaidatu eta bozkatzeko aurkeztu duen lege proiektuarekin. Hortaz, Gobernuari itzul dakion proposatzen du.

Nafarroako Gobernuak lehendakariaren bitartez besterik esan badu ere, krisi ekonomikoan murgilduta jarraitzen dugu; hartara, bereziki garrantzitsua da neurri gehiago ezartzea, zeinek helburu izanen baitute, zerga-bilketako nahikotasunaz gain, banaketa-justizian sakontzea. Politika sozialei krisi garaian eman beharreko arreta ez da hazkunde ekonomikoko garaian eman beharrekoa baino txikiagoa, eta, hortaz, inoiz baino beharrezkoagoa da banaketa-justiziaren arabera bidebatzea presio fiskala.

Oso kezagarria da kontsumoari gero eta zerga gehiago ezartzea, zeharkako zerga gehiago ezarrita, zuzeneko zergen kaltetan. Joera hori zuzen-zuzen kontrajartzen zaio gehien dutenek, gutxien dutenen hobe beharrez, gehiago ordaindu behar izatearen printzipioari.

Politika fiskala, hortaz, berritu beharko litzateke zuzeneko zergak hiru atali jarraikiz berrikusita: Ondareari buruzko Zerga berreskuratuta, kapitalen gaineko zergak berrezarrita eta Errentaren gaineko Zerga berregokituta, batez ere diru-sarrera handienekoei dagokienez.

Legebiltzarrera igorri den lege proiektuak printzipio neokontserbadoreetan eta neoliberaletan ainguratuta darrai, eta krisiaren irtenbidea ezin da printzipio horietan oinarritu, krisi honen ardura, neurri batean, printzipio horiena delako.

Azken urteotan, UPN, Sozialisten parlamentutaldearen laguntzarekin, zeharkako zergeri arian-arian pisu handiagoa ematen dien politika fiskala baliatzen ari da –bereziki BEZaren tasen igoerarekin–, eta zuzeneko zergek, berriz, pisu txikiagoa dute; izan ere, Ondareari buruzko Zerga kendu da, errenta-mailarik handien tasak gozatu dira eta

kapital-enpresa mota ezberdinen presio fiskala arindu da, esaterako kapital aldakorreko inbertisio-sozietateena. Jarduketa-ildo hori berresten du zuzenketa egin diogun lege proiektu honek.

Horretaz guztiaz gain, argi dago Nafarroako egitura fiskala aldatzean aurreikusi beharra dagoela Hitzarmena berritzeak zer aukera eman ditzakeen, bai eta Ecofin izenekoan parte hartzeko aukera ere. Horri dagokionez, berriro ere adierazi behar dugu beharrezkoa dela exijitzea Nafarroa aintzat har dezaten zeharkako zergen gaineko erabakietan, horretarako egituretan eta erakundeetan parte hartuz; hitzarmena berritzean, berriz, egungo jarraikeria hutseko printzipioaren ordez beste sistema parte-hartzaileago bat adostu beharko da, Arartekoak berak bere garaian adierazi zuenarekin bat eta aurreko ekitaldian aurkeztutako osoko zuzenketa adierazi genuenarekin bat.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen da “Josefina Arregui” zentro psikogeriatrikoarekin harremanetan jar dadin eta harekin bideragarritasun plana adostu dezan.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2010eko azaroaren 17an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen da “Josefina Arregui” zentro psikogeriatrikoarekin harremanetan jar dadin eta harekin bideragarritasun plana adostu dezan”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko azaroaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen da “Josefina Arregui” zentro psikogeriatrikoarekin harremanetan jar dadin eta harekin bideragarritasun plana adostu dezan

1. Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du “Josefina Arregui” zentro psikogeriatrikoarekin harremanetan jar dadin eta harekin bideragarritasun plana adostu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du dauden hogeita bat oheak abenduaren 31 baino lehen itundu ditzan, zentro horren iraupena ziurtatzeko.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da dietista-nutrizionistak 11/1992 Foru Legean eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sar ditzan.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2010eko azaroaren 17an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da dietista-nutrizionistak 11/1992 Foru Legean eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sar ditzan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko azaroaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da dietista-nutrizionistak 11/1992 Foru Legean eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sar ditzan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du dietista-nutrizionistak 11/1992 Foru Legean eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko diziplina anitzeko ekipoetan sar ditzan; izan ere, funtsezko eginkizuna dute gehien ematen diren gaixotasunen arloko sustapenari, prebentzioari, tratamenduari eta errehabilitazioari dagokienez, norbanakoen nahiz taldearen osasuna hobetuz eta kalitatezko zerbitzua nahiz egiazko berdintasuna eskaintzen lagunduz.

F saila:
GALDERAK

Galdera, “Pedro de Ursúa” BHIko tokirik eza dela-eta sortu diren hezkuntza-premiak asetze aldera egiten ari den plangintzari buruzkoa.*MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, “Pedro de Ursúa” BHIko tokirik eza dela-eta sortu diren hezkuntza-premiak asetze aldera egiten ari den plangintzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Victoria

Arraiza Zorzanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ukitutako ikastetxeei Hezkuntza Departamentuak eman dien informazioaren arabera, 250 ikasleek El Lago eta Mendigoiti ikastetxeetan egiten dute DBHko lehenengo maila, Pedro de Ursua BHIko tokirik ez dagoelako. Ikastetxeetako instalazioez gain, modulu aurrefabrikaturen bat eraikitze-ko premiaz ohartarazi dute.

Egoera horren aurrean ondokoa jakin nahi dut:

- Zer plangintza egiten ari da gero eta jendetsuagoa den eremu horretako hezkuntza-premiak asetzeko?

Iruñean, 2010eko azaroaren 22an

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza Zorzano

Galdera, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen % 0,7 arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legea betetzeari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen % 0,7 arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legea betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, ahoz erantzutako honako gaurkotasun handiko galdera aurkeztu du, azaroaren 25erako deitutako Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Álvaro Miranda Simavilla jaunak erantzun dezan:

• Kontseilariak ba al du asmorik Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen % 0,7 arautzen duen ekainari 5eko 7/2009 Foru Legea betetzeko? PFEZaren % 0,7ko funtseko gerakinak hurrengo ekitaldiko funtsari gehituko al zaizkio?

Iruñean, 2010eko azaroaren 19an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, jakiteko zein den Nafarroako Gobernuari eskatu zitzaion ikuskapen baten emaitza, xede zuena ezagutzea ea ikastetxe itunduetan familiei eskatzen ari ote zaizkien ordainketak egin ditzaten doako irakaskuntzaren truke.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zein den Nafarroako Gobernuari eskatu zitzaion ikuskapen baten emaitza, xede zuena ezagutzea ea ikastetxe itunduetan familiei eskatzen ari ote zaizkien ordainketak egin ditzaten doako irakaskuntzaren truke.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasuneko ondoko galdera aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Nafarroako Parlamentuak mozio bat onetsi zuen, zeinaren bidez Gobernuak premiaturik baitzuen 2009-2010 ikasturtean zehar Foru Komunitatean itunduak diren ikastetxe guztien ikuskapen bat egin zezan, ikuste aldera Hezkuntzari buruzko Lege Organikoak 88. artikuluan ezberrik gabe adierazten duena betetzen ote den; alegia, aginduzkoa dela itunduriko ikastetxe publiko edo pribatuek familiengandik inolako zenbatekorik ez jasotzea doakoak diren irakaskuntzak ematearen alde.

Jakin ahal izan da arau hori zenbait ikastetxe itundutan ez dela errespetatzen. Jakin ahal izan da ikasleen familiengandik dirusarrerak jasotzeko erabilitako formulak ugariak eta askotarikoak direla, bai eta oso ohikoak ere, eta kontzeptu ezberdengatik ordainduak.

Nafarroako Gobernuak premiaturik zen ikastetxe itunduen ikuskapen bat egin zezan, ezagutze aldera familiei ordainketak egin ditzaten eskatzen ari ote zaizkien ikastetxe horietan doako irakaskuntza emateko. Zein da ikuskapen horren emaitza?

Iruñean, 2010eko azaroaren 22an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano